

# ALCATE-BERRIYA.

JOSTAKETA HUSKERARA MOLDATUBA GIZON  
BACARRENTZAT.

MARCELINO SOROA LASAC.

Errial bat.

DONOSTIAN.

Pozo-ren moldizkiran.—Garibay callan 18 numeroan  
1885gurea artian.

ALCATE-BERRIYA

JOSTAKETA EUSKERARA MOLDATUBA GIZON BACARRENTZAT.

MARCELINO SOROA LASAC

Errial bat.

DONOSTIAN.

Pozo-ren moldizkiran.- Garibay calian 18 numeroan  
1885<sup>garren</sup> urtian.

Egillearen beste Jostirudiac.

IRIYARENA.

ANTON CAICU.

GABON.

iiiAU OSTATUBA!!!

iABEC ISHTILLUBAC!

ALCATE BERRIYA.

PREMIÑ ICAZKIÑA. (en prensa)

Liburuchua au legez  
erara egilliarena da.

AL DISTINGUIDO ESCRITOR Y ENTUSIASTA BASCÓFILO

DON ANGEL LOPEZ Y PLAZA.

A V., que admirador insigne de nuestra tierna y amada lengua, há querido aprovechar mis pobres enseñanzas honrando con sus rápidos progresos al amigo y al maestro, le dedico este ligero pasatiempo arreglado en pocas horas, para que le sean menos penosas sus lingüísticas tareas, seguro de que V. suplirá con su benevolencia, el mérito que le falte para que pueda ser digna recompensa del estudioso jóven que es hoy mi discípulo predilecto.

M. S. L.

EGILTZEAC.

ALCATIA.

ESCRIBAUA.

SECRETARIYUA.

CAITANO *eche aldecua, erregidoria.*

BARTOLO, *afaitatzallia.*

SILVESTRE, *igitua.*

LORENCHO, *egur saltzallia.*

FELIPE, *canpotarra.*

LUCANBIYO. *aguacilla.*

*Errico gendia.*

Gertaera iduritzenda naidan lecuban.

## EGITE BACARRA.

Iruditegian azaltzenda erri chiki bateco plaza. Alde batera contzejuco echia.  
LENBICICO IRUDIA.

### I.

*Errico gende batzубec cantari. Atzetic berriz erregidoria, secretariyua eta beste batzубec escribaua buru dutela. Lucanbiyo alde batian.*

Gendia (Cantari)	Posturic emen gatoz goicetic gustiyac gaste, zar, chiki, aundi nescach ta mutillac. Alaiturican dago gaur erri gustiya cergatic jarri duten alcate berriya. Orrengatic dacagu oraiñ esperantza plazan egingo dala maquiña bat dantza. Uren ordez gañera iturri gozua barrenac pishtutzeco matz naparrecua. Guacen. guacen aguro egihñ alegiña bota ciriricubac ta jó danboliña. <i>(Dijuaz saltoca ta irrintzica.)</i>
Esc.	Erri gustiya zoratu degu.
Sec.	Ez da izan asmo charra Tricu alcate egitia.
Esc.	Guri comeni zaiguna da, arren bizcarretic gu...
Erre.	Alcate izatia.
Sec.	Ori da.
Esc.	Arriya tira...
Erre.	Ta escuba gorde.
Sec.	Naideguna egingo degu. Bera ona da ta shamurra eta aur bat becela dantzatuco degu.
Erre.	Ori, ori. Eta gertatucoda, gogorrena alcate.
Esc.	Guretzat sagar eldu gozoac eta beretzat...
Sec.	Geza-miñac.
Esc.	Errematian badakizute...
Erre.	Bay, bay.
Sec.	Afaitatzallien izenian arduac, aguardientac, ta aragiya...
Erre.	Bañan ez ezere aitzera eman aguacillari cergatic salduco ginduzke.
Bestiac.	Ez, ez.
Esc.	Orain jo sagun atia echian otedan.
Sec.	Lucanbiyo, deitu zac. Ondo itzegin da...
Erre.	Tragatuco du amuba.
Aguac.	<i>(Atia jota oju egiten du.)</i> iBiba gure alcate berriya!
Bestiac.	iBiba! ibiba!

### BIGARREN IRUDIA.

*Lenguac eta Alcatia. Ojubac aituric afaitatzalleare ateratzenda bere aurreco echien dendatic eta ishirtzenda inguruban dacarren alki cashcar batian.*

- Alc. Zer oju dira abec?  
Esc. Egun on Tricu jauna? Ematen aldigu beorren lizentziya?  
Alc. Noiztic escribau jaunac itzegitendit orren fiñ eta escatzendu lizentziya?  
Esc. Alcate berriyari itz egiten diyonetican.  
Alc. Zer esaten dezu?  
Esc. Gatoz makill *bara* esaten tzayona, mendiyon jayo – mendiyon azi – errira etorri ta nagusi – alcate jaunaren escubetan jartzera.  
Alc. ¿Ni alcate? Utzi nazute pakian. Ez da ori egiya.  
Esc. Escribau batec ez du beñere gezurric esaten.  
Alc. Ez eh? ¡A zer choriya! ¿Chanchetaco gogua aldacazute?  
Bestiac. Ez jauna, ez.  
Alc. Bañan nic nere echia *gubernatzen* ezdakitala ¿nola gobernatu biardet erriya?  
Esc. Errico bozac beorri deitu diyote, eta ona nunduben Lucanbiyo aguacilla, arbasta, farola, esclaviña eta iru ishkiñaco chapelekin.  
Alc. Eziñ izanliteke ori zuben astakerien bat beizik. Badakizute ni ez naizela ortaraco.  
Esc. Erriyac egindu bere borondatia.  
Alc. Bay: zubez maniatutaco cashubelan. Ez naiz izango alcate.  
Esc. Ezin desegingo da gauza, Tricu jauna.  
Alc. ¿Ez eh?  
Bestiac. Ez, ez.  
Alc. Besteric ezin bada izango naiz indarrarian.  
Esc. Lenbizi egin biardu apaindu Lucanbiyoc emango diyonekin. Gero Contzejura gurekin etorri, eta gero...  
Alc. ¿Gero zer? ¿Zeinda emen alcate, zubez edo ni?  
Esc. (*Umilki*) Barcatu jauna bañan obe biarrez...  
Alc. Jantzinezac Lucanbiyo eta guacen (*jastendu*)  
Bestiac. Guacen, guacen.

### III

#### IRUGARREN IRUDIA

*Afaiatzallia bacarric (alchatzenda.)*

- Afai. Ez daude apareju charrac escribaua, secretariyua eta beste gustiyac!  
Emen egiazco alcatia beti da secretariyua. Oni laguntzen diyo escribauac eta biyen artian egiten dute ancheta. Alcarrekin ez daudenean berriz mingañekin larrutzen dira, bata besteari ezanic zer nai zitalkeri.  
Medicuba ta boticariyuare ezin begiz alcar icusi dira, batec errege biardala, eta bestiac errepulbica comeni dela, beti mococa daude, bañan egunero ibiltzen dirá biyac adizkide aundiyac balira bezela, zergatic medicubac ematen dizcan errezetac boticariyuari eta onec mintzubac arri; eta orrelashen dabiltzare maisuba ta erregidoria, arakiña eta ogizalia, sacristaba ta danbolinterua eta barberua ta ni. Onera etortzen diran gustiyac esatendute: iau erri polita! iau paketasuna! iAu gende alcar artecua! ¡Ederki biziliteke emen! Zortzi egun pasatu ezkerico icusicoluteke nola barrenen dabillen prozeziyua. Oraiñ alcatien escubekin nailituzteke surtatic gastañac atera.

IV.

LAUGARREN IRUDIA.

*Afaiatzallia ta Lorencho.*

*(Lorenchoc dacar asto bat sorta egurrekin eta onen gañian zintzilic ollar eder bat.)*

- Lor. *(ojuca)* iEgurra, egurra! Ederrra ta merke. ¿Ez otedet salduco gaur egun guztiyan? Estu baliyo basoan aitziac. Aldian da obiago pelotan sayatu ta Ameriketara diru puskabat irabaciyez juatia. iEz bazitzairake sasoya jun! iEgur ederra! iIgar igarra! *(Afaiatzalliri)* Egun on: erosi besait cargachuu.
- Afai. ¿Carga guztiya?
- Lor. Bai; iezalda bada aundiya!
- Afai. ¿Zenbat baliyo du beri ortan?
- Lor. Lenbailen gañetic kentzia gatik esango diyot azkeneco itza. Sei errial.
- Afai. ¿Sei errial?
- Lor. ¿Zertaco alferric jardun biar degu?
- Afai. Geicho iduritzen zait. Eztu orrenbeste baliyo.
- Lor. Basoan aridan necazariyac diru pishca ori nai lezake
- Afai. Bost errial.
- Lor. Ezin det. Gabonac inguruban dira eta ondo biarra da orain egurra zu basterrian danboliñari eraginez egoteco, anchen pipa artubaz gozaturik aitzen nola azoliyuac egiten duten pill, pill, pill; bishigubac zirt-zart eta gastañac pim pam.
- Afai. iEtzaude azoliyo charra zu! Ez dizut bost errial bañan geyago emango gustiyengatic.
- Lor. Nic gustiya saltzen det bañan ezin liteke bostian.
- Afai. Utzi orduban datorren urteaco; obetago igartucoda.
- Lor. Tira, tira, artu beza bosteterdiyan.
- Afai. Ustu sazu bada ustuu. Neretzat izan biar du.
- Lor. *(Soca ascutzen du eta ollara ustendu alde batera.)* Ez du tratu charra egin ez.
- Afai. Ecatzu lenbici benepiñ ollarr ori.
- Lor. ¿Ollarra? ¿Zertaco?
- Afai. Neria dalaco.
- Lor. ¿Beorrena? iEz luke guchi nai! Beorrec tratuba egin du egurrekin.
- Afai. Ez da ori egiya. Nic erosi dizut carga guztiya eta corgan zeguan ollarra.
- Lor. iEz luke bada merke eman nai galaya bere olluari! Bizarra kentzen duben bezala nai alditu kendu ollarrac?
- Afai. Nic esandizut bost errial terdi ematen dizkitzutala carga gustiyengatic; zuc entzunazu, carga guztiya zaltzen dezula, eta nic erantzun dizut orduban, ondo dala, ustutzeco, azkenian neretzat izan biardubela. Eta ollarra neria da.
- Lor. Ez jauna, neria.
- Afai. Bañan... *(izketan ishilca bere modus aurrandatzen dira.)*

V.

BOST GARREN IRUDIA

*Lenguac eta Alcatia.*

- Alc. Alcate egin naute, ustian galtza aundi bat naizela. Nic garbituco ditut baztarrac. Lanera bialdu det gende guztiya. Ez degu astegun gorriyan dantzic ta festaric biar. Luluba naizen edo ez orain progatuco eta eracutzico diyotet ez dala nere escubetan okertzen justicico makilla.
- Afai. *(Ojuca asten dira)* Ez dezu bada eramango.

Lor. Ez ta zure onekiñ geldituco.  
 Afai. Tratuba tratuba da.  
 Lor. Ta arrazoya arrazoya.  
 Alc. ¿Zer gertatzen da emen?  
 Lor. Alcate jauna, egin beza justiziya.  
 Afai. Bay jauna, bay juztiya.  
 Alc. Zuzen egingo da biardan bezela. (*Deica*) ¡Lucanbiyo! ¡Lucanbiyo!

VI:  
 SEI GARREN IRUDIA.  
*Lenguac eta aguacilla.*

Agua. ¿Zer naidu alcate jauna?  
 Alc. Justiciya egin biar diat.  
 Agua. Ar beza (*Ematen diyo bara*)  
 Alc. ¿Zer gertatu da emen?  
 Biyac. Jauna, nic...  
 Alc. ¡Ishóóó! Batec itz egin dezala lenbici. Esan Bartolo ¿Zergatic dezute okerra au?  
 Afai. Ollar onengatic.  
 Alc. ¿Ollarra culpagarri? Lucanbiyo, eramantzac ollarrau cartzelara. (*Eramatendu eta beriala etortzenda*) ¿Nola da contu au?  
 Afai. Jauna... nic erosi diyot asto gañian zecarren carga gustiya, eta ollarra nola batian zeguan, neretzat izan biardubela.  
 Alc. ¿Egiya alda ori?  
 Lor. O nec, jauna, erosi nau egur guztiya, bañan ez da ollarric tratuban zartu.  
 Alc. ¿Zuc esandiyozu carga gustiya saltzen dezula?  
 Lor. Bay jauna, bañan...  
 Alc. ¡Ishoooo! Erantzun zazu bacarric galdetzen dan gauzari. Eta zuc Bartolo ¿Zer esandezu?  
 Afai. ¿Nic, jauna? neretzat gelditzen dala.  
 Alc. Orduban zuretzat izangoda ollarra cartzelatic ateratzian.  
 Lor. Jauna, bost errial terdiyan egurra ta ollarra astuen gañian zegüalaco?  
 Alc. Bay, bay; ¿zertaco izandu zera orren astua?  
 Lor. Eta beste batzubetan bezela ecarri banuben nere emastia asto gañian?  
 Alc. ¿bost errial terdiyetan sartuco zan?  
 Alc. Emastia, aituric zuben tratuba, ichi bañan len jechi egingo zan asto gañetic. Ollarrac ere ori egin biar zuben.  
 Lor. Bada...  
 Alc. Esan det. Adabakiyorrec ez du antolatasunic, eta bacuitza pakian, dijuala bede bidian, ez bazante nayian egoteco ezalpian. Lucanbiyo tó. (*Ematen diyo vara*)  
 Lor. Nic somatuco det orreatic... (*abopian*)  
 Alc. ¿Zer esandezu?  
 Lor. Ezer ez jauna. (*Dijua bere astochuarekin eta afaitatzallia ari da echian egurra zartzen.*)

VII  
 ZAZPI GARREN IRUDIA.  
*Alcatia ta Aguacilla.*

(*Aguacillac esaten du bere giza, alcatia plazan gurdi bati begida dagon bitartian.*)

Aguac. Ez dakite oraindican norekin dabilizan Cartzelan sartu azi ez ditubenian, baleuzke pozic. Dantzic nai ez dubela esan du eta utzi ditu penaturic

errico nesca gustiyac. Erdi negarrez etorri dira neregana Maiñasi Errota azpicua, Mikela Eche aldecuca, Joshe pa Erramuna Aldapacua, Aintoni Mendiburucua, Juana Mari Errecacua, Luisa Echezarrecua eta beste gustiyac, eta ainpoliki eta maitasunekin escatu dirate usteco pishca bat danboliñian dantzatzen, cupitu ta bayetz esan diyotet.

VIII.  
ZORTZI GARREN IRUDIA.  
*Lenguac eta Erregidoria.*

Erre. ¿Echian aldago alcatia?  
Agua. Or dago (*deika*). Alcate jauna.  
Alc. ¿Zer?  
Agua. Ona nun duben...  
Erre. Ni nator Kiteri okerren partetic.  
Alc. ¿Justiciya egin biar alda?  
Erre. Bay jauna.  
Alc. Lucanbiyo...  
Agua. Ar beza (*ematen diyo vara*)  
Alc. Esan aguro eta argitasunekin.  
Erre. Orra bada. Migel Maric eman ementziyon Arrosha Inchaurregicuari escontzeco itza eta gero damutu egin zitzayola. Bañan bart gabian tellatutic tellatura ibillirican chiminitic naizubela sartu, bere asmuekin atera gabe purracatu egin dubela...  
Alc. ¿Zer?  
Erre. Chiminiya.  
Alc. Eta ¿zer naidu?  
Erre. Conpontzia edo pagatzia.  
Alc. Ucatuba dago.  
Erre. ¿Ucatuba? (*arrituric*)  
Alc. Bay ucatuba.  
Erre. Bañan nolatan ta zergatic...  
Alc. ¿Zergatic? Zergatic ni naizen erriyontaco alcatia, erriya egitendu emen tellatutic bera bizi dan gende gustiyac. Gauza ori tellatutic gora gertatuda, eta nere justiciya ez da arañño alleatzen.  
Erre. (*Bere burubari*) ¡Eta gero luluba dala esangodute au?  
Alc. Lucanbiyo, tó. (*Ematen diyo vara.*)

IX.  
BEDERATZI GARREN IRUDIA.  
*Lenguac eta canpotar bat.*

Can. ¿Barcaciyeukiñ? ¿zein da beotan alcatia?  
Alc. ¿Zer naizen duben?  
Erre. Nere echian dagona.  
Can. Ni nator justizi billa.  
Alc. ¿Justiciya? ¡Lucanbiyo!  
Agua. Ar beza. (*Ematen diyo bara*)  
Alc. Azi saitez nai dezunian.  
Can. Orra bada, bart etorri nintzan erriyontara, galdetu nuben nuntzan ostaturic onena eta esantziraten erregidorien echian cale ishkiñan. Gozian goiz juteco moldatzen ari nitzala escatu det contuba. Ecarri dirate, icusi det eta gelditu naiz abua zabalic, zergatic lapurreta bat dan.

Alc. Erregidoria, zurekin dijua ori.  
 Erre. Gezurra esaten du. Nere echian ez da lapurretic egiten.  
 Can. Iracur beza alcate jauna naibadu eta sudurren punta mostu nazatela ez badu nic bezela esaten.

Alc. Iracurtzac Lucanbiyo.  
 Agua. (*Iracurtzen*) Oi baten gatic chinchilicayuekiñ...: Amalau errial.  
 Alc. ¿Amalau errial?  
 Erre. Alde guztiyetan ori escatzen da gaurco egunian.  
 Alc. Aurrera.  
 Agua. Lo egitiatic... lau errial.  
 Alc. ¿Eta oya jarriya egoten alda?  
 Erre. Bai eta onec aifñ lo pisuba du... orrengatic.  
 Alc. Orduban moscorr batec zenbat pagatzendu, ogei errial? Aurrera,  
 Agua. Eper shalchan aragiya, tipula ta baratzuriyekin... ama sei errial.  
 Alc. Mocadu garishtiya da ori.  
 Agua. Plater bat angulen gatic... emezortzi errial.  
 Alc. ¿Oriyocuac altziran?  
 Can. ¿Oliyocuac?  
 Alc. Oriyocuac.  
 Erre. Ez; Loyolacuac.  
 Alc. Anbat gaiztuago. Aurrera.  
 Agua. Piper gisatubengatic... zortzi errial. Iru lacarri saldalengatic...  
 Alc. ¿Iru lacari jantzituben jaun onec?  
 Erre. Ez, bere saldiyac.  
 Agua. Amar errial. Kicara chocolatia... lau errial.  
 Alc. ¿Aundiya altzan kicara?  
 Can. Titaria añacua.  
 Erre. Baita pishontziya añacuaere.  
 Can. Ez da egiya.  
 Agua. Guztitara jotzendu... irurogeita amalau errial.  
 Can. Ezan bezait oraiñ alcate jauna arrazoya nuben edo ez.  
 Alc. ¡Eta ainbeste! Lucanbiyo, eramantzac erregidoria cartzelara.  
 Erre. Bañan...  
 Alc. Cartzelara. (*Gogor*) Eta zuc ogeita amar errial emanda contuba pagatzen dezu.  
 Can. Ar bezate. ¡Au da au justiciya egitia! Ariyo  
 Alc. Ondo ibilli. (*Dijuala deitzen diyo*) ¿Aizazu aizkidia? ¿bai aldezu chartelic?  
 Can. ¿Zer chartel?  
 Alc. *Zedula personal* esaten diyotena. ¿Ezaldakizu Euscaras?  
 Can. Echian utzi det astuta.  
 Alc. ¡Zer! ¿chartelic ez? Lucanbiyo, eramantzac jaunau cartzelara.  
 Can. Bañan alcate jauna...  
 Alc. Ez det ezere aitzen. Erregidoria ta zu cartzelara. Aguro.  
 Can. Au animalkeri bat da.  
 Alc. ¿Zer esan dezu? ¿Animalkeriya? Lucanbiyo, lotuzac ondo calabrote batekin (juten dira) ¡Etzan bada besteric falta ¡Zedulic gabe! ¡Nic garbituco ditut baztarrac! Oraiñ ardangeriya icusi biar det.

## X.

### AMAR GARREN IRUDIA.

(*Azaltzen da Lorencho egur zaltzallia ez esagutzeco moduban ondocho jantziya, arpegiyan pañubeluba edo bizar antzecua eta gañera begiordeac ditubela. Alcatiac juteacuan icusiric esatendu.*)

Alc. ¿Zeiñ otedegu oraiñ au? Egun on. ¿Emengo aldi?  
 Bay... jauna... (*pishcabat larri*)



Alc. Ondo, ondo. Ariyo.  
Lor. Bijua ondo.  
Alc. (*Beregisa*) ¿Zertaco escatuco diyot chartela? Onenian besterena izangodu ta... Ba ez ba esango diyot Lucanbiyori contu artzeco.

XI.  
AMAICA GARREN IRUDIA.  
(*Lorencho bacarric.*)

iEz nau esagutu! iEz naiz charretic atera Orainchen afaitatzalle tripa aundiyorrec pagatu biar nau eraman ditan ollarra. Alcatiac ez naubenian esagutu, guchiyago esagotuco nau zomorruorrec; emen da bera.

XII.  
AMABI GARREN IRUDIA.  
*Lorencho ta afaitatzallia.*

Lor. Egun on.  
Afai. Egun on digula.  
Lor. ¿Ez da aldi ontan bici afaitatzallia?  
Afai. Ni naiz zerbitzeco.  
Lor. Orra bada: ni nator afaitatzera edo bizarra ebakitzera, beste iskiñortan gelditudan lagun batekiñ eta nainuke jakin zenbat eramango gaituben biyari.  
Afai. Sei cuarto bacuitzaren gatic.  
Lor. Ondo da. Bañan jakiñ biardu nere laguna dala oso bizar lirañacua.  
Afai. Ez dit ajolic. Escu shamurra det nic.  
Lor. Laguna ecartzera nua bada.  
Afai. Bascaitaco quartillu ardua irabazi det.  
Lor. (*Astochuarekiñ*) Arre, arre, ona nun duben nere laguna, eta contus labana ibilli zergatic azal fiiña du.  
Afai. iZer! ¿Nic astua afaitatu?  
Lor. Jarri, jarri zapiya lenbailen.  
Afai. ¿Bañan zu moscorra zaude edo zer?  
Lor. Berriketa guchi eta tratuba, tratuba da.  
Afai. iMilla diabru!  
Lor. Baita lau millare nai badu.  
Afai. Ez det afaitatuco.  
Lor. ¿Ez, eh? Jakiñ beza bada ollarren jabia naizela eta ez badu afaitatzen alcatuari deitutuco diyotala.  
Afai. Etzan ori tratuba.  
Lor. Ollarrarenare etzan ala tratuba, bañan nazpilla bat zortudit eta beste nazpilla batekin pagatzen diyot. Astochua beorren sai dago.  
Afai. Topatu zayozu bada beorra.  
Lor. Eta jarri bezayo zapiya edo aski ez bada maindiria.  
Afai. Lenago afaitatuco nuke balia.  
Lor. Balia guztiyac beorri bezelacuac aguro munduba lurperatuco litzaque. Ia aguro bilguman itz egin biar du ta...  
Afai. Alperric zabilta.  
Lor. ¿Bay? (*Alcatia agertzenda alde batetic*) Alcate jauna emen dator eta nic escatuco diyot justiciya.  
Afai. Bañan gizona...

XIII.  
AMAIRU GARREN IRUDIA.  
*Lenguac eta Alcatia.*

Lor. Alcate jauna, justiciyaren biarran nago.  
Alc. ¿Justiciya? Ichogon biarco dezu pishcabat zergatic aguacillac  
eramandu... bañan emen da bera.

XIV.  
AMALAU GARREN IRUDIA.  
*Lenguac eta aguacilla.*

Agua. Jauna, giltza pian gelditu dira agindu duben bezela.  
Alc. ¿Ondo lotu dec erregidoria?  
Agua. Euztarri bat baño obetago.  
Alc. Orain bada Lucanbiyo justiziya egin biar diat.  
Agua. Ar beza, (*Emanic bara*)  
Alc. ¿Zerda emen?  
Biyac. Jauna...  
Alc. Batec itz egin dezala. Zuc ¿Nola dezu izena?  
Lor. Lorencho, jauna.  
Alc. Asi bada.  
Lor. Ni naiz jauna edo nintzan lengo ollarren jabia.  
Alc. ¿Bay, eh? ¡Lotzagabia! Eta comeriya bezala egiteco jantzi altzera orrela?  
Lor. Orra ba. Nic galdetudiyoc oni afaitatuco gaituben ni eta nere laguna.  
Bayetz esandit. Zenbatian galdetu diyot seiná cuarto bacuitza  
erantzundit. Eta oraiñ ez du afaitatu nai nere laguna.  
Alc. ¿Egiya alda ori?  
Afai. Bai jauna, bañan nic ez nuben uste laguntzat zubela astua.  
Lor. Ezta nic ere ez nuben uste carga egurrian zartzentzala ollarra.  
Alc. Bartolo, beriala afaitazazu astua.  
Afai. ¿Nic? Lenago lertu.  
Alc. ¿Bay? Lucanbiyo, eramantzac afaitatzalia cartzela.  
Afai. Alcate jauna...  
Alc. Ezta itzic ere.  
Lor. Ori da justiziya egitia.  
Alc. Eta zu, Lorencho, zure escus justiziya egin nai zendubelaco gorderic  
gorrotua, cartzelara Bartolorekin.  
Lor. Arrazoyekin nic...  
Alc. Ez da arrazoiric uste dan gaitz bat beste batekin pagatzen.  
Lor. ¿Eta ollarra?  
Alc. Biyen artian cartzelan jango dezute (*Dijuaz*)

XV.  
AMABOST GARREN IRUDIA.  
*Alcatia bacarric.*

¿Naiz edo ez alcate? ¡Zer uste suten chanchetacua izango nitzala *hombre chaparo* bat bezela?  
Oraindic aundiyaguac icusi biardituzte zuzen ibiltzen ez badira. Ardan degiyan ere arkitu ditut  
chulo batzubez nundic zartzen diran iturric urac eta...

XVI.

AMASEI GARREN IRUDIA.  
*Alcatia ta igitua.*

git. ¿Beorri da bear bada escribau jauna?  
Alc. Ez naiz ni, ez. ¿Ta zu zeintzera?  
Igit. ¿Ni, jauna? ¿Neonec ere bay aldakit?  
Alc. ¿Nongua zera?  
Igit. Eroseinlecutacua. Alde guztitacua eta iñongua ez?  
Alc. ¿Zer lanetan sayatzen zera?  
Igit. ¿Ni jauna? Zestuac egin, zestuac zaldu eta belarri luziari illia mostutzen guraiziabekin (*Ateratzen ditu guraize aundi batzубec.*)  
Alc. ¿Igitua zera beaz?  
Igit. Ala deitzen emendigute.  
Alc. ¿Eta nun bizi zera oraiñ?  
Igit. ¿Oraiñ? Emen ordu erdiyontan.  
Alc. ¿Bacarra zera?  
Igit. Bacarric etorri naiz, bañan nere emastiekin eta astuekin bederatzi biltzen gera.  
Alc. ¿Orduban astuac zortzi dira?  
Igit. Bederatzi naibadu beorrec.,.  
Alc. Neri bi faltatuzaizkit bada eta...

XVII.  
AMAZAZPI GARREN IRUDIA.  
*Lenguac eta Aguazilla.*

Agua. Alcate jauna...  
Alc. Lucanbiyo, justiziya egin biar diat.  
Agua. Ar beza, eta jakiñ biar du...  
Alc. ¿Zer?  
Agua. Lepua jarriconukela ez badira guriac soro chikiyan icusiditutan bi astuac bestien tartian.  
Igi. Astuayec neriac dira.  
Alc. ¿Bay eh?  
Agua. Esagunda pintatubac daudela, bañan copeteco marca ber bera dute eta gañera nerekiñ naisuten etorri.  
Alc. Lucanbiyo, eramantzac gizonau cartzelara. To. (*emanic vara*)  
Igit. ¿Cartzelara?  
Alc. Bay, cartzelara ta ishoo. (*Dijuaz*)

XVIII.  
EME ZORTZI GARREN IRUDIA.  
*Alcatia, bacarric.*

iEta astuac justiziyaren contu geldituco dira! Ez da besteric falta gure ganadubac oyen mende gelditzia! Bañan probintziyontan ¿nundic sortzen dira igitu abec? Zabaltzen dira bastanga bezela eta azariyen ta igituen artian ustutzen digute eche guztiya. Ezkerrac oraiñ probintzico aitac agindu dutela garbitasuna egiteco eta ez degula izango orlaco alde gaiztocoric.

XIX.  
EMERETZI GARREN IRUDIA.  
*Alcatia ta Caitano.*

Cai. Alcate jauna...

Alc. ¿Zer abill Caitano?

Cai. Oker bat desegitia nainuke.

Alc. Obia izango dec zuzentzia.

Cai. Atzo arratzian tabernan negüala lagunekiñ zartuzan secretariyua eta nola nere eguna zan da artzaldeco tripa festa ederra egin genduben, necarren buruba...

Alc. ¿Bero shamarra e?

Cai. Eta secretariyuac baso pare bat ardo ateraic eta itz eztiyekin churicaturic egin azin ziran paper bat...

Alc. ¿Nola?

Cai. Badaki azpaldiyan Martinchoc erosi naiditala zubi gañeco echia gaztaiñ alde guztiyekin, eta etzerala eman nai nic escatzen niyon aña...

Alc. Bai, bai...

Cai. Bada secretariyua lendic nerekin azarre egonic alare, adizkide moduban azalduzan eta egiñtzituben alegiñac ni Martinchoren aldera jartziagatic.

Alc. ¿Eta norc dizkic culpac?

Cai. Jauna...

Alc. Ire crac, crac, crac. ¿Zergatic arrapatzendituc corapillu oyec?

Cai. Nola nere eguna zan...

Alc. Urteco egun guztiyac iriac izaten dituc. ¿Iñorc etzuben icusi nola gertatuzan ori?

Cai. Bai jauna.

Alc. ¿Eta cerbaitez conturatu ziran?

Cai. Uste det bayetz. (*Sartzenda Lucanbiyo.*)

Alc. Aituco ziyuatet bada bere denboran. ¿Ta zer desio zecarren secretariyuac contuba ori orrela erebakitzeco?

Cai. Nola Martincho bere alabarekiñ escontzeco dagon...

Alc. ¡Aaa! ¡Ez dec motela ez!

Cai. Gañera escribau jaunac kendu dizca nere lengusubari, zeramazkiyen arto lurrac, boza beorrentzat eman ez dubelaco.

Alc. ¿Orire badegu? ¡Lucanbiyo (*deica*)

Agua. Jauna.

Alc. Ua contzejura eta secretariyua etortzeco, escribauare bay baldin an badago, bestela ua bere echera aguro.

Cai. ¿Ta, zein lengusuri kendu dizca lurrac?

Alc. Tomash aldapa aundicuaari.

Cai. Aituco diyotet bada zuri bezela, batari ta besteari eta nere neurriyan justiciya egin godet biardan becela, cergatic legien aurrian contu batian dira chikiyac nola aundiyac eta gustiyac bere bidian artu ezkeru, beste modus jungo da munduba. Nic esagutzen det cergatic egin nauten alcate. Nere bizcar nai zuten oyec far egin, bañan, bere ustian loria arkituco zuten lecuban, topatuco dute osiña. Gauza dijuan moduban errico cartzela zabaldu biarco degu, edo beste berri bat egiñ. Emen datoz bi choriyabec.

## XX.

### OGEI GARREN IRUDIA.

*Alcatia, Escribaua, Secretariyua eta Aguacilla.*

Esc. ¿Zer degu alcate jauna? Gauza aundiren bat gertatzen alda orlaco estuasunekiñ deitzeco? (*Farrez becela*)

Alc. Ez dacagu gaitic. Comeriyen bat dala uste aldezu au?

Esc. Ez bezela charrera artu...

Alc. Lucanbiyo, justiciya egin biar diat.

Agua. Ar beza. (*Ematen diyo arbasta*)

Esc. ¿Zer icusi biar otedegu emen? (*Abopian*)

Alc. Secretariyo jauna: ¿Egiya alda Caitanori egin azi zendiyola bart papel bat Chomiñ Picharren tabernan? ¿Bai edo ez?

Sec. Egin azi ez.

Alc. ¿Nola?

Sec. Egin zuben bere gogoz.

Alc. ¿Ez altzen duben esagutu zer modutan zeguan?

Sec. Umore onarekiñ.

Alc. ¿Bai, eh? Lucanbiyo, eramantzac Secretariyua cartzelara.

Sec. ¿Zer? Etzan orrengatic...

Alc. ¿Ez, eh? Cartzelan argituco dezu bada contubau. Escribau jauna: ¿egiya alda zure maishter Tomashi kendu dizcatzula zeramaskiyen lurrac, boza eman etzubelaco zuc naizenduben aldera?

Esc. Ez jauna. Nic lurrac kendudizcat bañan...

Alc. Lucanbiyo, eramantzac Escribaua cartzelara Secretariyuakin batian.

Esc. ¿Zer? ¿Fedia cartzelara?

Alc. ¿Fedia? Elizan fedia.

Esc. ¿Nundic sortuda gizon au? ¡Ez digu petardo charra eman!

Alc. ¿Ze errosayo aricera errezatzen? Eta ic, Caitano ¿Bai aldakic zer dan justiciya?

Cai. Bedorrec ederki egiten dubena.

Alc. ¿Errespetatzecua alda?

Cai. Bay jauna.

Alc. ¿Eta errespetatzen danari etzayo chapela ateratzen?

Cai. Bay, jauna.

Alc. ¿Zergatic ez dec bada atera? Lucanbiyo, eramantzac cartzelara Caitanoren chapela. (*kentzendiyo*) (*Aitzen dira oju batzubec eta danboliñ soñuba*) ¿Zer da ori? Ezdet agindu ez soñoric jotzeco eta dantzic egiteco?

Agua. Jauna, errico nescacha guztiyac ezcatu naute pishca bat uzteco, eta esandirate aiñ ezti...

Alc. Ezti atzera ¿Nere agindubac orrela desegiñ? Lucanbiyo, ua emendic cartzelara.

Agua. ¿Nire bay? Ez da justiciya errespetatzen ere.

Sec. Ona, jauna onen papela. Oker iduritzen bazayo dezeingo degu.

Alc. Dezein bada. Eta gaurcuengatic usten zaitustet zuzen ibiltzeco itzekin. Lucanbiyo aterazaskic beste cartzelan daudenac eta ez naiz geyago alcate. Progatunazute.

Sec, Erri guztiyac eta guc nai degu beorri izatia.

Besti. Bai, bai.

Alc. Ala nai bada ba izango naiz; bañan zuzen ibilli guztiyac bestela badakizute ostatu berriya, eta contentu gauden señaian cantazagun zortzico polit bat. (*Beste guztiyac etortzen dira ta cantzaten dute*)

Alc. Desegokizco gausac  
 icusiric emen  
 ez izan orrengatic  
 kescaric barrenen.  
 Orrelaco naspilic  
 jaunac, oraiñ ta len  
 gure mendi tartean  
 ez dira gertatzen.  
 Probintziyontan bici  
 da leyal gendia  
 denbora zarretatic  
 izanic noblia.

Bata bestearentzat  
pareric gabia  
lana franco topatzen  
beste bat obia.  
¿Chaloric aitu gabe?  
gu jun? iZer icara!  
ecatzac Lucanbiyo  
justicico bara.  
Ez badute gogotic  
artzen gure euscara  
danac eramantzazkic  
¿Nora?  
Cartzelara.

Agua.  
Alc.

BUCAERA